

2014an %2,6 gehitu zen ospitaleratze kopurua euskal ospitaleetan


Begi-lausoak (%+8) jarri ditu nerbio-sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak aurren ospitaleratzeetan

Eustaten datuen arabera, 2014. urtean Euskal AEko ospitaleetan 320.761 alta eman ziren, aurreko urtean baino %2,6 gehiago. Publikoetan (non eman ziren alta guztien %78) %3,3ko gehikuntza; pribatuetan, %0,4.

Ospitalizatuen %97,4 Euskal AEn bizi ziren (%49,3 Bizkaian, %32,5 Gipuzkoan, %15,6 Araban); %2,4 beste probintzietan (Burgos, Kantabria, Nafarroa, Errioxan gehien bat); %0,1, atzerrian.

Emakumeak %51,2; gizonak %48,8. Erditzea eta haurduntza ez badira kontuan hartzen, %47,5 eta %52,5. 2014an, 65 urte eta gehiagokoak, alten %46,5, goraka beti; ospitalizatuen artean ugariena 78 urtekoak.

Altako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera. 2014



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Gaixotasunen sailkapen normalizatuaren arabera, nerbio-sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak aurren ospitalizazioetan (%13,9); begi-lausoagatik gehien bat (25.000 gertakari, diagnostikatuena).

Bigarren, digestiboaren gaixotasunak (%11,7); hirugarren zirkulazio sistemarenak (%11,4); osteomuskularrak (%9,3); tumoreak (%9,1); arnas sistemarenak (%8,8).

Ordena aldatu egiten da generoa eta adina kontuan hartuz. Emakume artean, bigarren (%13,8) haurduntza, erditzea eta erdiberriarora; aurren (%14,7) beti ere nerbio-sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak. Emakumeak gehiengoan adinarekin lotutakoetan, begi-lausoan eta osteoartrosian.

Gizonak gehien bat aparatu digestiboagatik (%14, batez ere iztai-etena) eta zirkulazio-aparatuagatik (%13,2, gutxiegitasun eta aritmia kardiakoak) ospitalizatzen dira. Laugarren arnas-aparatua (bronkitis kronikoa, pneumonia).

Heriotza zergati nagusiak, tumoreak (ia 30.000 ospitale-egonaldi). Tumore ugariak: maskurian, kolonean, titian, prostatan.

Batez besteko ospitale-egonaldia 5,7 egun 2014an. Egonaldirik luzeena burunahasteak (13,6 egun batez beste); jaiotza-ingurukoak (10,6); gaixotasun infekziosoak (8,7), tumoreak (7,7).

Altako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera, adinari jarraiki. 2014

Diagnostiko-multzo handiak	Altak Kopurua	Aldakuntza tasa % 2014/2013	Altak guztira (*) %	Adin-taldeak			
				0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago
Total	320.761	2,6	100	16.827	72.411	82.400	149.123
Nerbio-sistema eta zentzumen-organoak	44.429	7,2	13,9	1.383	3.123	8.984	30.939
Digestio-aparatua	37.453	3,0	11,7	1.681	8.048	11.881	15.843
Zirkulazio-aparatua	36.586	-0,3	11,4	147	2.841	9.445	24.153
Osteomuskularrak	29.799	1,1	9,3	430	6.575	11.520	11.274
Tumoreak	29.116	1,0	9,1	429	3.562	10.734	14.391
Arnas-aparatua	28.130	3,0	8,8	3.681	4.196	5.086	15.167
Hausturak eta lesioak	23.269	0,7	7,3	1.164	5.199	6.425	10.481
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	22.717	-0,7	7,1	8	22.575	134	-

(*) Alta guztien gaineko %

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Oharra: Gaixo akutuen ospitaleetako datuak. Ohiko ospitalizazioak hartu dira aintzat, gau batekoak gutxienez, eta egun berean burutzen direnak. Batez besteko egonaldia kalkulatzeko, eguneko egonaldiak ez dira kontuan hartu.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Ospitaleetako erikortasun-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasun-estatistika. Datu bankua